

Zubia pastoralak Portugaleten

Bizkaia Zubiari omen herri antzerkiaren bidez

Koplak, musika, dantza eta kantak josiz, herri antzerkia egingo dute Portugaleten, Ezkerraldeko herrian, abenduaren 16an, jazoera historikoak konta ditzan zubiari hitza emanez. 180 herritarrek hartuko dute parte Harribola elkarteak eragin duen egitasmoan.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIA: ARITZ LOIOLA

Ipurterre kuadrilla da Harribola, edo Harribola elkarteak osatzen dutenak. Luis Colina (Portugalete, 1960), eta Iñaki Alcedo (Bilbo, 1960) dira lekuko, eta elkarrekide. Duela zortzi urte ekin zioten bideari, euren herri Portugaleteko hornigai merkatua kafe antzoki bihurtzeko asmoa buruan hartuta, aspaldi inork ezertarako erabiltzen ez zuen eraikina baitzen. “Lan ederra egin genuen, proiektu arkitektonikoa diseinatu, bideragarritasun plana egin... Eta udalari joan gintzaizkionean, ezer ez, bizikletak ferratzera bidali gintuzten”.

Asmoa ez gauzatuagatik, ordea, bizirik iraun zuen egindako lanaren suak. Ilintietatik, berriz, Harribola elkarteak sortu zuten. Harrezkero, honetan eta hartan jardun du elkarteak, harik eta herri antzerkiaren ideia izan zuten arte.

Luis Colinak ikusi zuen argia, orain dela hiru urte. “Ibarrangelutik ekarri nuen ideia. Domingo Zulueta pastoralak ikusi nuen han, bertako apaiz izandakoari buruzko benetako pastoralak. Harribolako lagunekin hitz egin, eta zorabuta daudenez, ondo hartu zuten ideia”. Batzarrak egiten hasi zirenean, gaia zehazteari ekin zioten. Periko Solabarria, Ignazio Ellakuria... bazituzten aukerak. “Baina ez genekien haietaz behar beste-

ko informazio lortzeko gauza izango ote ginen, edo nahiko erakargarri izango ote zitzaizkion jendeari”. Azkenean, Portugaleteko Bizkaia Zubiak aurtan 125 urte betetzen dituela jabetu ziren, eta huraxe ardatz hartzea erabaki zuten.

Pastoralak baino herri antzerkia

Aitor Etxebarraren (Lekeitio, 1959) da gidaria. Dioenez, gaia erabakiz gero, agudo antolatutako testua, berehala osatu zuen eskema. “Zubia eraikitzea, inauguratzea, gerra, gerra ostea, diktadura, eta gaur egun. Horrelaxe banatu nuen gidaria”. Ez da, hala ere, zubiaren historia, zubiak berak, pertsonifikatuta, kontatzen duena baino. Emakume bat ipini dute zubi esekiarena eginez, eta berak kontatuko du denboraren joanean bere begiez ikusia. “Elementu pila bat ibili nuen hasieran. Herrian bada aldiakari bat, *El Mareometro* izenekoak, eta han, berriz, hainbat kontu eta istorio zubiari erakiten zutenetik gaur artekoak, pertsonaia historikoak eta bestelako gertakariak, eta honenbestez, nire hasierako eskema osatzeko erabili ditut elementu horiek. Herriko artxiboetara ere jo nuen, baita Tasio Munarrizengana ere, herriko historiari hainbat dakienarengana”. Etxebarriak idatzitakoa osatu eta zuzendu

zuten batzuek eta besteek, azken gidaria izan zuten arte.

Gidaria eszenaratzean oharatu ziren lehenengo ideia murriztu beharra zutela. Ordu eta erdi, bi ordukoa nahi zuten herri antzerkia, musika eta dantza osagai aringarri zituztela. Iñaki Aurrekoetxea (Bilbo, 1970), bertsolariak jarri du koplata Aitor Etxebarriaren gidaria, eta jakinaren gainean lan egin du, Portugaleteko pastoral honek ezinbestean behar zuela ohi baino laburragoa. “Hemen ez dago aski oinarririk Zuberoako pastoral bat egiteko, ezta ikusteko ere. Hiru-lau orduko pastoralak, edo antzerkia, gogoz ikustea ez da posible hemen”. Horrelaxe ulertu zuen Aurrekoetxeak eta horrelaxe egokitu zuen Etxebarriaren testua. 110en bat koplak idatzi ditu Aurrekoetxeak, eta halaxe kantatuko dituzte Portugaleteko euskara hiztunek, uste baino gehiago baitira herrian. “30 urtetik beherakoen artean, askok baino gehiagok daki euskaraz herrian. Eta horien gurasoen artean ere ez dira gutxi euskaraz dakitenak”. 50.000 biztanle dira Portugaleten, eta %20 da euskalduna. “Erabilera txikiagoa da, Euskal Herrian denean bezala. Hala ere, leku bertsuetan ibiltzen dira euskaldunak Portugaleten, erraz lokalizatzen dira”, diote.



Herriak egina

Pastoral bat herrikoia nahi zuten, herri-tarrek egina, ez inolako elkarte jakinen mendeko ekimena, euskara hutsezkoa... eta lanean hasi ziren. Pastoral egin ahal izateko, ordea, jendetza behar izaten da. Luis Colinarene arabera, 60 lagunek parte hartu zuten Ibarrangeluko pastorealean. Portugaleten, berriz, 200 ere bilduko dituzte: 20 emakume ari dira jantziak presatzen, musikariak dira 40, kantariak 60, eta aktore eta figuranteak 120 inguru. "Bagenekien jendea beharko genuela, baina, adibidez, Gure Esku Dagoren kontsulta deialdiaren inguruan 200 lagun bildu ginen. Horrek adierazi zigun jendea gogotsu zebilela". Iñaki Aurrekoetxeak ere badaki. "Dantza tradizio handia dago Portugaleten, abesbatzak ere badira... Pastoral egitokotan, indargune dira". Eta, halaxe, herriko dantza taldeetako zuzendariekin hitz egin zuten, abesbatzetako buruekin, antzerki eskoletako gidariekin... "Eta, horretan, pastoral honen zuzendaritza artistikoa herriko hiru dantzari hartu zuten, Iker Gilek, Eneritz Mantzisorrek eta Mikel Urangak. Izugarritzko lana egin dute, eta dinamizazio ahalegin ikargarria. Beraiek dira, musika bandako zuzendari Jabier Ituarterekin batera, ekitaldien diseinua eta obraren eskaleta osoa egin dutenak. Beraiek arduratu dira aktoreak bilatzen eta entsegu-lan guztiez ere". Haiena, beraz, mere-

**IÑAKI ALCEDO,
HARRIBOLA ELKARTEA:**
"Norbanakoak mugitzea izan da gure nahia. Ez zen taldeen arteko lehia. Harrigarri izan da, bateko eta besteko taldeetako dantzari edota abeslariak entsaiora bildu eta nola egin duten bat, herri antzerki hau helburu. Natural-natural jardun dugu"

zimendua, Aitor Etxebarriaren esanetan.

Ez dute, hala eta ere, azpiegiturarik sortu behar izan pastoral egin ahal izateko. Sortua zuten Harribola elkarte, lozorroan bazegoen ere, eta elkartearen izenean jardun dute. "Sasoi batean, euskararen aldeko talde bat ere sortu genuen, udala presionatzeko, Euskara Biziberritzeko Plana abiaraz zezan. Eta lortu genuen. Gaur egun, Aise elkartearekin ari da lanean Portugaleteko Udala, Euskara Biziberritzeko Plana inplemen-

tatzen". Xedea lorturik, presio taldea desegin, eta beste eginkizun batzuei lotu zitzaizkien Harribolako kideak. Oraingoan, herri antzerkiaren txanda izan dute. Edo pastoral? "Hasieran, gure asmoa pastoral egitzea izan zen, behar den modukoa. Afixan ere horrelaxe ipini dugu: *Zubia pastoral. Portugaleteko herri antzerkia*. Kostata iritsi ginen horretara", esan du Luis Colinak... Iñaki Alcedo, berriz, Zuberoan izan zen uztailearen hondarrean, *Belako zalduna* pastoral ikusten, eta ez du dudarik. "Hangoa ikusi nuen, eta zeharo konbentzituta etorri nintzen: gure antzerki hau ez da pastoral, baina pastoralaren osagai asko ditu". Iñaki Aurrekoetxeak: "Errespetuz egin dugu gure pastoral hau. Azken finean, Zuberoako pastoralari egiten diogun omenaldia ere bada lan hau. Gurera ekarri dugu, geure elementuekin egin dugu". Eta Aitor Etxebarriaren erremate: "Pier Paul Berzaitzekin hitz eginda nago, eta hark zorroztasuna eskatzen du herri antzerkia pastoral izendatu baino lehen. Etxahun Iruriren garaitik hona ahaleginak egin dira pastoral oraingo garaira egokitzeko, baina zuberotarrak beldur dira Zuberoatik kanpo egiten diren egokitzapenetan pastoralaren muina gorde izan ote den". Inondik ere, asmatu dute Portugaleten: beren lanari *Zubia pastoral* izena emanik ere, "herri antzerki" izena erantsi diote... ■